

Eskizofreniaren aurkako botikekiko erresistentziak badu azalpen bat


Eskizofrenia tratatzeko erabiltzen diren medikamentu batzuk, antipsikotiko atipikoak, ez dira eraginkorrek hiru pazientetik batentzat.

Nature Neuroscience aldizkarian argitaratutako ikerketa baten bidez, ikertzaileek aurkitu dute zer mekanismok eragiten duen erresistentzia. Ikusi dute, denborak aurrera egin ahala entzima bat ugaritzen dela eskizofrenikoaren burmuinean —HDAC2 izenekoa—, eta entzima horrek, gehiegizko kopuruan, aldaketa epigenetiko batzuk eragiten dituela, medikamentuen eraginkortasuna gutxitzen dutenak.

Artikuluaz azaltzen dutenez, medikamentuak berak eragiten du HDAC2 entzimaren ugaritzea. Paziente eskizofrenikoaren post mortem ehunetan eta animalietan egin dute ikerketa, eta mekanismo

zehatza zein den ikusteko aukera izan dute ikertzaileek.

Medikamentu antipsikotiko atipikoen jomuga serotoninaren 5HT2Aren hartzailea da; izan ere, neurotransmisore hori aldatuta egoten da eskizofrenikoengan, eta haluzinazio-koadroak sortzen ditu. Hala ere, aurreko ikerketa batek erakutsi zuen tratamenduak neurotransmisioko beste sistema bati eragiten diola: sistema glutamatergikoari, hain zuzen. Zehazki, glutamato neurotransmisorearen mGlu2 hartzaileak murrizten ditu, eta horrek gehitu egiten ditu gaixotasunaren sintoma negatibo deiturikoak: uzurtasuna eta interesik eza, adibidez. Orain, nahasmendu horren kausa HDAC2 entzimaren aktibitatea handitzea dela erakutsi dute, eta horrek eragiten dituela



Ane Gabilondo, Koldo Callado eta Javier Meana irakasleek eta Aintzane García-Bea doktoratu aurreko ikertzaileak parte hartu dute ikerketan. ARG.: EHU.

mGlu2 hartzailea inhibitzea ekartzen duten aldaketa epigenetikoak.

“Azterketa honekin, argituta geratzen da asaldurak eragiten dituen mekanismoa, eta oinarri zientifiko handia ematen zaio eskizofrenia tratatzeko mGlu2 hartzaileak estimulatzeko erabilerrari”, azaldu du EHUko Farmakologiako katedradun Javier Meanak. Izan ere, hainbat konpainia farmazeutiko ari dira, gaur egun, jomuga berri honetara zuzendutako

medikamentu antipsikotikoak garatzen.

EHUko Farmakologia Saileko zientzialariek bi ikerketetan parte hartu dute, nazioarteko ikerketa-taldeen partzuergo baten bidez. New Yorkeko Mount Sinai Medikuntza Fakultatea, Arizonako Unibertsitatea, Massachusettseko Teknologia Institutua eta Espainiako Buru Osasuneko Sareko Biomedikuntzako Ikerketa Zentroa (CIBER) dira gainerako kideak. ●



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma.

Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

